







Energiaren kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %3 egin zuen behera martxoan 2018. urteko hil berean izandakoaren aldean, arlo guztietan izan zen jaitsieraren ondorioz: %7 eraikinetan, %0,4 industrian eta gainerako sektoreetan, hala nola energiarenean.

Elektrizitate kontsumoak nabarmen egin du behera etxebizitza sektorean, %15 eta zerbitzuen sektorearen kasuan %1.

Siderurgia sektorearen kontsumoak %2,5 egin du behera, eta hau kontuan hartu barik industriaren kontsumoak %1 gora egin du. Azken honek eraikuntza eta obra publikoko igoera (%11) eta ehungintzaren jaitsiera (-%12) barneratzen ditu, besteak beste.

Gas naturala







Martxoko gas naturalaren guztizko kontsumoak %8,7 egin zuen gora, aurreko urtekoarekin alderatzen bada. Zentral termikoen kontsumoa, aurreko urteko martxoarena baino 4 aldiz handiagoa izan zen, kontsumo hura oso txikia izan baitzen. Gainerako sektoreena, berriz, %1 jaitsi zen.

Erregaiak garraioan

2019ko otsailean, EAEn, garraioen erregaien kontsumoa %6,9 handiagoa izan zen 2018ko otsailarekin alderatuta.

Epe berean, gasolinaren kontsumoak %11,9 egin zuen gora eta A gasolioarenak %6,5.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



Nazioarteko egoera

Petroliaren kontsumoa munduan

2019ko martxoan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 101 milioi kupel izan zen (2018ko martxoan izandakoaren aldean, %0,9 igo zen).

Epe berean, Txinak %3,4 hazi zuen bere kontsumoa 14Mbpd arte, AEBek %0,9 jeitsi zuten 20Mbpd arte eta Europar Batasunak %1,3 jaitsi zuen 14,9 Mbpd arte.







Munduan, azken 12 hilabetearen hilaren batez bestekoa 100 Mbpd ingurukoa izan zen.

Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2019ko urtarrilean, 204 bcm (milaka milioi m³) inguru kontsumitu ziren. 2019ko urtarillaren kontsumoak %2,2 egin zuen gora, 2018. urtean izandakoaren aldean. Azken 12 hilabetearen hilaren batez bestekoa 146 bcm-koa izan zen.

OCDEko alde geografikoen arabera, kontsumoen aldaketak gorabeheratsuak izan ziren, aurreko urtekoekin erkatuta; izan ere, Amerikan eta Asia-Ozeanian %3,1 eta %1,8 jeitsi ziren, hurrenez hurren, eta Europan, berriz, %13,7ko igoera esanguratsua izan zen.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



Energiaren kontsumoa Espainian

Energia elektrikoa

Espainian, elektrizitatearen kontsumoak %6,1 egin zuen behera martxoan, 2018ko hil horretan izandakoarekin konparatuta. 2019. urteko martxora arte metatutako kontsumoa %2,8 baxuagoa izan da aurreko urtearekin alderatuz.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2019ko martxoan berriztagarrien partaidetza %43 izan zen, eolikoarena %24 izanik. Gainerako sorkuntza, erregai fosilen (%30) eta nuklearraren (%27) bitartez asetu da.

Gas naturala






2019ko martxoan, Espainian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %2,2 egin zuen behera, 2018koarekin konparatuta. Zentral termikoetan %46 gora egiten zuen bitartean, gainerako sektoreetan ia %8 murriztu zen kontsumoa epe berean.

Erregaiak garraioan

Espainian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera du 2014. urteaz geroztik.

Erregai motaren arabera, gasolinen kontsumoari dagokionez, 2019ko otsailen %7ko igoera nabarmentzen da, aurreko urteko otsailarekin alderatzen bada; eta A gasolioa, berriz, %0,4 murriztu da epe berean.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 66,4\$ (58,8 €) izan zen martxoan, urte hasierako igoera joerari helduz. 2018an 56\$ arte murriztu ostean, prezioak %18 egin du gora 2019an.

Elektrizitatearen prezioa

Espanian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 49 €/MWh izan zen martxoan, aurreko urtearekin alderatuz, %21,5 altuagoa.

Gas naturalaren prezioa

Holandako TTF delakoa, erreferentziakoa batez besteko prezioa europar merkatuan, 15,7 €/MWh izan zen martxoan; Espainian, MIBGASena 18 €/MWh-koa izan zen; eta Alemaniako EGIX M+1aren martxoko prezioa 18,7€/MWh izan zen.

Nazioarteko merkatuetan, martxoan, Henry Hub deritzona, 10 €/MWh-ra iritsi zen, eta prezioa Japonian 25 €/MWh izan zen.







Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren eta gasolinaren prezioak gora egin dute urte hasieratik. 2018ko abenduan gasolioaren prezioa 1,14€/l izan zen eta gasolinarena 1,19€/l; 2019ko martxoan, berriz, gasolioarena 1,26€/l izan da eta gasolinarena 1,30€/l.

CO2-aren prezioa

CO2-aren europar baimenaren prezioa 21,9€/t izan da martxoan, 2018ko abenduko balio altua mantenduz.

Iturriak: EIA, OMIE, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

2019 urte hasieran berriztagarrien parte hartzea %38,8koa izan da, energia eolikoak gora egin baitu eta erregai fosilek behera. Energia nuklearrak %20ko parte hartzarekin jarraitzen du.

Frantzia

2019ko sorkuntza elektrikoak Frantzian, aurreko urtearen egitura antzekoa jarraitzen du; funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%71). Berriztagarrien ekarpenak %17ra murrizten dira, aurreko urtekoekin alderatuz behera egiten dutelarik eta erregai fosilek gora.

Alemania

Alemanian, 2019ko urtarrilean, aurreko urteko joerari jarraituz, berriztagarrien ekarpena sorkuntza elektrikoan handituz doa (%37), erregai fosilen bidezko sorkuntzaren kalterako (%51); nuklearren partaidetzak bere horretan jarraitzen du (%12).

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da ikitzaren (%33) eta, maila apalagoan bada ere, gasa naturalaren (%16) partaidetza sorkuntza elektrikoan.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.